

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2012KO EKAINAREN 1EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

Errenteriako udaletxean, 2012ko ekainaren 1eko goizeko 08:10 zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Miren Alazne Korta Zulaika
- Iruñe Balenciaga Arrese
- Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi
- (Guztiak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)
-

Ez dira etorri, baina ezinetorria adierazi dute, Luis M^a Diez Gabilondo Arrese, Jon Txasko Orgilles (O.E. BILDU)

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier Lesca Ezpeleta idazkaria jauna.

1. Gobernu Batzarrak 2012ko maiatzaren 18an eginiko ohiko aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2012ko maiatzaren 18an eginiko ohiko bilkuraren akta irakurritakoan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Onartzea 2012ko maiatzaren 18an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

2. Proposamena: Donostiako epaitegiarekin elkarlanean, adinez nagusi direnentzat “gizartearen aldeko lana” Errenteriako udalean burutzeko proiektua onartzea.

Donostiako Epaitegitik Errenteriako Udaleko lankidetzara eskaera luzatu zen, hain zuzen ere Errenteriako biztanleek gizartearen aldeko lanak Errenteriako udalean bertan egin ahal izateko.

Kontutan izanik 2010. urtean jada aukera hori planteatu zela eta “Gizartearen aldeko lana” proiektua egin zela, eta 2012. urteko maiatzean, Gizarte Zerbitzuetako programen koordinatzailea den Amaia Arotzenak, proiektu horri egin beharreko aldaketak egin eta gero, proiektua eguneratu duela.

Gizarte Zerbitzuetako batzordean, 2012ko maiatzaren 17an, gai honen berri eman zen.

Gizarte Zerbitzuetako batzordeak proposatuta,

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez,

ERABAKI DU

Onartzea adinez nagusi direnentzako “Gizartearen aldeko lana” proiektua, Donostiako Epaitegiarekin elkarlanean Errenteriako udalean burutzeko.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaituzat eman du egun bereko 08:15 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.